

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

3234

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 29koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako ebazpen hau: Ebazpena, 2021eko irailaren 22koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegiatzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

1.– 2022ko maiatzaren 18ko 118. BOEn argitaratuta, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegiatzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen abenduaren 21eko 1124/2021 Errege Dekretuaren onuradunen tipologia zabaltzen duen maiatzaren 17ko 377/2022 Errege Dekretuak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegiatzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duen ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren atarikoaren, 3., 10., 11., 12. eta 20. artikuluen eta I., II. eta III. eranskinen edukia aldatu du.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, energia berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegiatzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituen Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenak (2021eko urriaren 1ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 197. zenbakian) ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretu horretan aurreikusitako baldintzak bete behar dituzenez, pizgarri-programa arautzen duten oinarriak berriz ere aldatzeari ekin behar zaio.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegiatzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituen Energiaren Euskal Erakundeko (EEE) zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpena bigarren aldiz aldatzea; modu honetan aldatzen da:

1.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/6) orrialdean, «Laguntzen azken hartzaileak» 2. oinarriaren 2.1.1.a) atalean,

Hau dio:

«2.1.1.– 4. oinarrian aurreikusitako 1., 2. eta 3. pizgarri-programen barruan, honako hauek hartuko dira laguntzen azken hartzailetzat:

a) Pertsona juridikoak eta enpresen edo pertsona fisikoen taldeak, nortasun juridikoa dutenak edo ez dutenak, merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomiko bat egiten dutenak, honako hauek barne:

1. Industrialde publiko edo pribatuetako kudeatzaileak.
2. Energia-eremuko jarduketan enpresa ustiatzaile, errentari edo emakidadunak.
3. Energia-zerbitzuetako enpresak, edo energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan definitutako energia-zerbitzuen hornitzaileak. Zuzentaru horren arabera aldatzen dira 2009/125/EE eta 2010/30/EB Zuzentaruak, eta indargabetzen dira 2004/8/EE eta 2006/32/EE Zuzentaruak, energia-auditoriei, zerbitzu-hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren efizientziaren sustapenari dagokienez. Onuradun izateko, jabetzarekin horretarako ezarrita duten kontratuaren arabera jardun beharko dute enpresa horiek eta oinarri hauetan bildutako jarduketan tipologiaren batean barne hartutako inbertsioak burutu, energia-zerbitzuetako enpresa gisa izandako jarduketa eta egindako inbertsioa akreditatuta beharko dutelarik».

Baina hau esan behar du:

«2.1.1.– 4. oinarrian aurreikusitako 1., 2. eta 3. pizgarri-programen barruan, honako hauek hartuko dira laguntzen azken hartzailetzat:

a) Pertsona juridikoak, pertsona fisikoak eta aurreko figuren elkarteak, nortasun juridikoa dutenak edo ez dutenak, merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomiko bat egiten dutenak, honako hauek barne:

1. Industrialde publiko edo pribatuetako kudeatzaileak.
2. Energia-eremuko jarduketan enpresa ustiatzaile, errentari edo emakidadunak.
3. Energia-zerbitzuetako enpresak, edo energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan definitutako energia-zerbitzuen hornitzaileak. Zuzentaru horren arabera aldatzen dira 2009/125/EE eta 2010/30/EB Zuzentaruak, eta indargabetzen dira 2004/8/EE eta 2006/32/EE Zuzentaruak, energia-auditoriei, zerbitzu-hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren efizientziaren sustapenari dagokienez».

2.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/7) orrialdean, «Laguntzen azken hartzaileak» 2. oinarriaren 2.1.1 atalean,

Hau dio:

«Horrez gain:

• 1. pizgarri-programaren azken hartzaileek honako talde hauetako baten barruan jardun beharko dute Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazional baten arabera (hemendik aurrera, EJSN): G, H, I, J, K, L, M, N, O, P, Q, R edo S. Betiere, administrazio publikoak ez badira».

Baina hau esan behar du:

«Horrez gain:

• 1. pizgarri-programaren azken hartzaileek honako talde hauetako baten barruan jardun beharko dute Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazional baten arabera (hemendik aurrera, EJSN): G, H, I,

J, K, L M, N, O, P, Q, R edo S, betiere administrazio publikoak edo irabazi-asmorik gabeko entitate edo erakunde pribatuak ez badira».

3.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/9) orrialdean, «Laguntzen azken hartzaileak» 2. oinarriaren 2.1.4 atalean,

Hau dio:

«2.1.4.– 4. oinarrian aurreikusitako pizgarri-programa guztietan udalek, diputazio probintzialek edo erakunde baliokideek, udalerrien mankomunitate edo elkarteek, eta dagokion tokiko edo autonomia-erkidegoko administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakundeek eta erakunde publikoek, laguntzan azken hartzaile izateko aukera izango dute, pertsona fisiko edo juridikoen, publiko edo pribatuen, zerbitzu-sektoreko edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-jarduketak gauza ditzaketen beste produkzio-sektore batzuetako instalazioetako jabeen ordezkari gisa, betiere, Dirulaguntzei buruzko Legeko 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako bete beharko delarik».

Baina hau esan behar du:

«2.1.4.– 4. oinarrian aurreikusitako pizgarri-programa guztietan udalek, diputazio probintziales edo erakunde baliokideek, Espainiako udalerrien mankomunitate edo elkarteek, uharteko kabildo eta kontseiluek, eta dagokion tokiko edo autonomia-erkidegoko administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakundeek eta erakunde publikoek, laguntzan azken hartzaile izateko aukera izango dute, pertsona fisiko edo juridikoen, publiko edo pribatuen, zerbitzu-sektoreko edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-jarduketak gauza ditzaketen beste produkzio-sektore batzuetako instalazioetako jabeen ordezkari gisa; betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoa bete beharko da.

Kasu horietan, elkarte horiek ordezkatzuz diharduen azken hartzaileak aurkeztu beharko d(it)u ordezkatu bakoitzari legezkiokkeen programetarako laguntza-eskaera(k)».

4.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/9-10) orrialdean, «Laguntzen azken hartzaileak» 2. oinarriaren 2.2.a) atalean,

Hau dio:

«2.2.– Honako hauek ezingo dira laguntzen azken hartzaile izan:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren bat betetzen ez dutenak (hemendik aurrera, "DEO").

Testuinguru horretan, azken hartzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharririk ez daukala, edo, bidezko bada, betebeharririk bete izana, egiaztatzen duena, 21. artikuluko horretan ezarritakoari jarraikiz.

Azken hartzaileak egunean egon beharko du, halaber, Dirulaguntzei buruzko Legeko 13. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzeari dagokionez, besteak beste, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta xede horretarako aintzat hartuko da azken hartzaileak laguntza-eskaera aurkeztearekin batera, administrazio-organo emaileari eta instruktoreari baimena ematen diela informazio hori zuzenean kontsultatzeko zerga-administrazioarekin

edo dagokion Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin, prozedura izapidetu bitartean beharrezkoa den guztietan».

Baina hau esan behar du:

«2.2.– Honako hauek ezingo dira laguntzen azken hartzaile izan:

a) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduko 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak.

Testuinguru horretan, azken hartzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharririk ez daukala, edo, hala badagokio, betebeharririk bete izana egiaztatzen duena, 21. artikuluko horretan ezarritakoari jarraikiz.

Azken hartzaileak egunean egon beharko du, halaber, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzeari dagokionez, besteak beste, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta xede horretarako aintzat hartuko da azken hartzaileak laguntza-eskaera aurkeztearekin batera, organo emaileari baimen espresua ematen diola informazio hori zuzenean kontsultatzeko aukera izan dezan, zerga-administrazioarekin edo dagokion Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin, prozedura izapidetu bitartean beharrezkoa den guztietan. Baimen hori ematen ez bada, azken hartzaileek dagozkien ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte».

5.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/20) orrialdean, «Laguntzen azken hartzaileak» 11. oinarriaren j) epigrafean,

Hau dio:

«j. Subentzionatutako ondasunaren titularra izan beharko du onuradunak, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez bost (5) urtez laguntza eman zitzaion egunaz geroztik. Laguntzaren azken erabiltzaileak laguntzaren xede den ondasuna besterentzen badu, aldezturik ezarritako denbora-tartea igaro baino lehen:

- Egiaztatu beharko du eta EEEn aurrean deklaratu erosle berriak betetzen dituela Oinarri hauetan laguntzaren azken hartzaile izateko aurreikusitako betekizun guztiak.

- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:

- Ondasun horrek energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo eta biltegiarekin eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutako pizgarrien Programaren laguntza jaso duela.

- Erosle berriak laguntzaren azken hartzailearen posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, aipatutako epea bete arte.

- EEEn egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabeteko epean formalizazioaz geroztik. Laguntzaren azken hartzaileak betetzen ez baditu besterentze horri dagozkion eskakizunak, jasotako laguntza itzuli beharko du, osoa edo haren zati bat, dagokionaren arabera».

Baina hau esan behar du:

«j. Onuradunak ondasun subentzionatuaren titularra izan beharko du, eta dirulaguntza ematean kontuan hartu zen xede zehatzerako erabili beharko du gutxienez bost (5) urteko epean

laguntzaren ordainketa-datatz geroztik, horrela betetzeko 2021eko ekainaren 24ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/1060 Erregelamenduak ezarritako mugak eta betekizunak, Erregelamendu horrek Eskualde Garapeneko Europako Funtzari, Plus Europako Gizarte Funtzari, Kohesio Funtzari, Bidezko Trantsiziorako Funtzari eta Itsasoko, Arrantzako eta Akuikulturako Funtzari dagozkien xedapen komunak ezartzen dituelarik, baita Funtz horietarako eta Asilo, Migrazio eta Integrazio Funtserako, Barne Segurtasuneko Funtserako eta Mugen Kudeaketarako eta Bisen Politikarako Laguntza Finantzarioko Tresnarako finantza-arauak ere.

Laguntzaren azken erabiltzaileak laguntzaren xede den ondasuna besterentzen badu, aldeztatik ezarritako denbora-tartea igaro baino lehen:

- Egiaztatu beharko du eta EEEn aurrean deklaratu erosle berriak betetzen dituela Oinarri hauetan laguntzaren azken hartzaile izateko aurreikusitako betekizun guztiak.

- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:

- Ondasun horrek energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo eta biltegitratzearekin eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzearekin lotutako pizgarrien Programaren laguntza jaso duela.

- Erosle berriak laguntzaren azken hartzailearen posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, aipatutako epea bete arte.

- EEEn egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabeteko epean formalizazioaz geroztik. Laguntzaren azken hartzaileak betetzen ez baditu besterentze horri dagozkion eskakizunak, jasotako laguntza itzuli beharko du, osoa edo haren zati bat, dagokionaren arabera».

6.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/20-21) orrialdean, «Laguntzen azken hartzaileen betebeharrak» 11. oinarriaren k) epigrafean,

Hau dio:

«k. Publizitate-alorreko betebeharrei dagokienez:

[...]

- Horrez gain, 100 kW-tik gorako potentzia izendatuko sorkuntza-instalazioetarako, plan estrategiko bat aurkeztuko da, instalazioko osagaien jatorria edo fabrikazio-tokia (nazionala, Europakoa edo nazioartekoa) eta haien ingurumen-inpaktua adieraziko duena, biltegitratzea, osagai bakoitza hautatzeko erabilitako kalitate- edo iraunkortasun-irizpideak, instalazioaren interoperatibitatea edo sistemari zerbitzuak eskaintzeko duen ahalmena adierazita, baita aurreikuspenen arabera proiektuak ETEen eta autonomoak bultzatzeko izango duen eragina ere.

Toki-enpleguan eta tokiko, eskualdeko eta Estatuko industriako balio-katearen gaineko estimazioak ere barne hartzeko aukera izango du. EEEn emango du dokumentu hori, eta atal honetan aldeztatik adierazitako azken hartzailearen argitalpen edo webguneetan egongo da eskuragarri.

Baina hau esan behar du:

«k. Publizitate-alorreko betebeharrei dagokienez:

[...]

- Horrez gain, 100 kW-tik gorako potentzia izendatuko sorkuntza-instalazioetarako, plan estrategiko bat aurkeztuko da, instalazioko osagaien jatorria edo fabrikazio-tokia (nazionala, Europakoa

edo nazioartekoa) eta haien ingurumen-inpaktua adieraziko duena, biltegitratzea, osagai bakoitzaren hautatzeko erabilitako kalitate- edo iraunkortasun-irizpideak, instalazioaren interoperatibitatea edo sistemari zerbitzuak eskaintzeko duen ahalmena adierazita, baita aurreikuspenen arabera proiektuak ETEen eta autonomoak bultzatzeko izango duen eragina ere. Bereziki, Europar Batasunaren autonomia estrategiko eta digitalaren helburuarekiko ekarpena hartu beharko du barne, baita hornidura-katearen segurtasunaren bermearekiko ekarpena ere, nazioarteko testuingurua eta soluzioaren parte izan daitekeen edozein osagai edo azpisistema teknologiko sentikorren eskuragarritasuna kontuan hartuz, Europar Batasunean kokatutako hornitzaileei lotutako softwarea, ekipoa, osagaiak eta sistema-integrazioak eskuratuz.

Toki-enpleguan eta tokiko, eskualdeko eta Estatuko industriako balio-katearen gaineko estimazioak ere barne hartzeko aukera izango du. Laguntzen deialdia egiten duen agintaritzak argitaratuko du dokumentu hori, eta artikulua honen 1. atalean adierazitako azken hartzailearen argitalpen edo webguneetan egongo da eskuragarri».

7) Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/23) orrialdean, «Azken xedapenak» 14. oinarriaren 14.4 atalean:

Hau dio:

«4. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:

- 477/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitratzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duena, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan;

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa;

- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21koa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

- 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa;

- Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamendua, 2014ko ekainaren 26koa, laguntza kategorian jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten duena minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua eta Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionaleko zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamendua ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30koa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituen, bere azken xedapenetako lehenaren arabera oinarritzeko diren xedapenetan;

- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena; eta

- 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa».

Baina hau esan behar du:

«4. Oinarri hauek aipatzen dituzten dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:

- 477/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegiatzeari eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duena, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan;

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa;

- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

- Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamendua, 2014ko ekainaren 26koa, laguntza kategorია jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten duena minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduaren eta Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, aplikatzekoak izan litezkeen zuzenbide nazionaleko zein Europar Batasuneko gainerako xedapenei kalterik egin gabe, bereziki 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamendua ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritu eta kudeatzearen eremuan onartzen diren xedapenei dagokienez.

- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, arau horren azken xedapenetako lehena araberako oinarriak diren xedapenetan. Bereziki aplikatzekoa da haren 37. eta 46. artikuluetan aurreikusitakoa, batetik, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik eratorritako diru-sarreraren lege-eraginari dagokionez, eta, bestetik, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bitartez finantzatutako proiektuen jarraipenerako informazio-betebeharrei dagokienez.

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, baldin eta, dirulaguntzak egikaritzean, Lege horren eraginpean jarri beharreko kontratuak egiten badira, eta, HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena; eta, bestetik, HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-egikaritzea eta mugari eta helburuak betetzearen jarraipenerako Estatuko Autonomia, Erkidegoko eta Tokiko Entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen duena, eta, beste zenbait betebeharen artean, laguntzen azken hartzaileen identifikazioari dagokion informazio-eskuragarritasunari lotutako betebehara betetzea.

- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena; eta

- 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa».

8.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/24) orrialdean, «Jarduketa subentzionagarrien betekizunak eta kostu hautagarriak» I. eranskinaren sarreran:

Hau dio:

«Jarduketa subentzionagarriek honako betekizun hauek bete behar dituzte, baita honako eranskin honetan bildutakoak ere:

– 1. pizgarri-programa: zerbitzu-sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, establezimenduetako autokontsumorako edo zerbitzu-sektoreko instalazioetarako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere.

– 2. pizgarri-programa: ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, establezimenduetako autokontsumorako edo 1. pizgarri-programan aurreikusi gabeko produkzio-sektoreetako instalazioetarako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere.

– 3. pizgarri-programa: zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea. Jarduketa subentzionagarria izango da, zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan txertatzen diren kontagailuaren atzeko biltegitratze-sistemetan inbertitzea.

– 4. pizgarri-programa: bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, bizitegi-sektoreko, hirugarren sektoreko eta administrazio publikoetako autokontsumorako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere.

– 5. pizgarri-programa: bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea. Jarduketa subentzionagarria izango da, bizitegi-sektorean, hirugarren sektorean eta administrazio publikoetan lehendik dauden iturri berriztagarrien bidezko energia elektrikoa sortzeko instalazioetan txertatzen diren kontagailuaren atzeko biltegitratze-sistemetan inbertitzea.

– 6. pizgarri-programa: bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia termikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, klimatizaziorako edo etxebizitzetan ur bero sanitarioa sortzeko».

Baina hau esan behar du:

«Programa honetan onartutako pizgarri-programak sei dira, horietako hiru biltegitratzea duten edo ez duten energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetarako (1., 2. eta 4. pizgarri-programak), bi lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzeko (3. eta 5. pizgarri-programak), eta azken bat energia berriztagarri termikoen instalazioetarako (6. pizgarri-programa).

Programa honek finantzatutako instalazioek, (EB) 2019/2088 Erregelamendua aldatzen duen inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020ko ekainaren 18ko Europako

Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2020/852 Erregelamenduan ezarritako ingurumen-helburuei «kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa beteko dute.

Jarduketa subentzionagarriek honako betekizun hauek bete behar dituzte, baita honako eranskin honetan bildutakoak ere:

–1. pizgarri-programa: Zerbitzu-sektorean energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioak egitea, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, zerbitzu-sektoreko autokontsumorako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere. Xede horietarako, zerbitzu-sektoreko inbertsioak dira, azken hartzaile posibleek 1. pizgarri-programa honetarako gauzatutakoak.

– 2. pizgarri-programa: ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan autokontsumo-instalazioak egitea energia-iturri berriztagarrien bitartez, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, 1. pizgarri-programan aurreikusi gabeko produkzio-sektoreen autokontsumorako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere. Xede horietarako, 1. pizgarri-programan aurreikusi gabeko produkzio-sektoreetako inbertsioak dira, azken hartzaile posibleek 2. pizgarri-programa honetarako gauzatutakoak.

– 3. Pizgarri-programa: zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidez dabilzan autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea. Jarduketa subentzionagarria izango da, zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan txertatzen diren kontagailuaren atzeko biltegitratze-sistemetan inbertitzea.

– 4. Pizgarri-programa: bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumo-instalazioak egitea energia-iturri berriztagarrien bitartez, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, bizitegi-sektoreko, hirugarren sektoreko eta administrazio publikoetako autokontsumorako, baita jarduketa horiei lotutako biltegitratzea ere.

– 5. pizgarri-programa: bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea. Jarduketa subentzionagarria izango da, bizitegi-sektorean, hirugarren sektorean eta administrazio publikoetan lehendik dauden iturri berriztagarrien bidezko energia elektrikoa sortzeko instalazioetan txertatzen diren kontagailuaren atzeko biltegitratze-sistemetan inbertitzea.

– 6. pizgarri-programa: bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea. Jarduketa subentzionagarria izango da iturri berriztagarrien bidez energia termikoa sortzeko instalazioetan inbertitzea, klimatizaziorako edo etxebizitzetan ur bero sanitarioa sortzeko».

9.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/25) orrialdean, «Jarduketa subentzionagarrien betekizunak eta kostu hautagarriak» I. eranskinaren IE.1 atalaren B epigrafean.

Hau dio:

«B. Ildo beretik, Programa honen xedeetarako hautagarria izateko, eta 1., 2., 3., 4. eta 5. pizgarri-programei aplikatzekoa denari dagokionez, biltegitratze-instalazioak izango dira elektrizitatearen azken erabilera, energia hori sortu zen unearen ondoko beste une baterako geratzen dutenak, edota, energia elektrikoa biltegitratzeko moduko energia bihurtzen dutenak, energia hori geroago berriz ere energia elektriko bihurtu ahal izateko. Instalazio horiek hautagarriak izan daite-

zen, biltegitratzea ezin izango zaio sareari zuzenean konektatu, eta autokontsumo-instalazioaren zati izango da.

Sorkuntza-potentziaren aldean biltegitratze-kapazitate instalatuko 2 kWh/kW-ko ratioa gainditzen ez duten biltegitratze-instalazioak bakarrik hartuko dira hautagarritzat. Gainera, gutxienez 5 urteko bermea izan beharko dute.

Biltegitratzeko berun-azido teknologiak ez dira hautagarriak izango.

3. eta 5. pizgarri-programen arabera, berriztagarrien autokontsumorako lehendik dauden instalazioetan biltegitratze-instalazioak txertatzea jarduketa subentzionarioa izango da.

Bestetik, 1., 2. eta 4. pizgarri-programen kasuan, sorkuntza-instalazio berriak izango dira jarduketa subentzionarioak, eta biltegitratze-instalazioak lotuta eramateko aukera izango dute».

Baina hau esan behar du:

«B. Ildo beretik, Programa honen xedeetarako hautagarria izateko, eta 1., 2., 3., 4. eta 5. pizgarri-programei aplikatzeko denari dagokionez, biltegitratze-instalazioak izango dira elektrizitatearen azken erabilera, energia hori sortu zen unearen ondoko beste une baterako geroratzen dutenak, edota, energia elektrikoa biltegitratzeko moduko energia bihurtzen dutenak, energia hori geroago berriz ere energia elektriko bihurtu ahal izateko.

Instalazio horiek hautagarriak izan daitezten, biltegitratzea ezin izango zaio sareari zuzenean konektatu, eta autokontsumo-instalazioaren zati izango da.

Sareko instalazio isolatuetan izan ezik, sorkuntza-potentziaren aldean biltegitratze-kapazitate izendatu instalatuko 5 kWh/kW-ko ratioa gainditzen ez duten biltegitratze-instalazioak bakarrik hartuko dira hautagarritzat. Gainera, gutxienez bost urteko bermea izan beharko dute.

Biltegitratzeko berun-azido teknologiak ez dira hautagarriak izango.

3. eta 5. pizgarri-programen arabera, berriztagarrien autokontsumorako lehendik dauden instalazioetan biltegitratze-instalazioak txertatzea jarduketa subentzionarioa izango da.

Bestetik, 1., 2. eta 4. pizgarri-programen kasuan, sorkuntza-instalazio berriak izango dira jarduketa subentzionarioak, eta biltegitratze-instalazioak lotuta eramateko aukera izango dute».

10.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/25) orrialdean, «Jarduketa subentzionarioen betekizunak eta kostu hautagarriak» I. eranskinaren «Jarduketa subentzionarioak» IE.1 atalaren C epigrafean.

Hau dio:

«C. Programa honek onartutako edozein pizgarri-programari lotutako instalazio guztiek, 6. programako toki-berokuntzako aparatuen Biomasako tipologia izan ezik, dirulaguntzaren xede den instalazioak sortutako energia elektrikoa edo termikoa monitorizatzeko sistema bat eduki beharko dute.

Sistema horren funtzionalitateak honako hauek izango dira:

– Sistema horrek erakutsi beharko du, gutxienez, egunean, hilean eta urtean sortutako energia berriztagarria, eta aldi horietan kontsumitutako energia.

– Aurrekoaz gainera, sistemak datu gehigarriak erakusteko aukera ere izango du, hala nola saihestutako CO₂ emisioak eta instalazioaren jabearentzat sortutako aurrezki ekonomikoa.

– Pantaila bat jarri beharko da ondo ikusteko moduko toki batean, datu eguneratuak erakusteko. Hori programa guztietan aplikatzeko aukera izango da, 4., 5. eta 6. pizgarri-programetan bildutako bizitegi-sektoreko jarduketarako izan ezik.

– Horrez gain, edozein jarduketarako, informazio hori gailu mugikorren bidez eskuratzeko aukera bermatuko da».

Baina hau esan behar du:

«C. Programa honen edozein pizgarri-programari lotutako instalazio guztiek, 6. programako toki-berokuntzako aparatuen Biomazako tipologia izan ezik, dirulaguntzaren xede den instalazioak sortutako energia elektrikoa edo termikoa monitorizatzeko sistema bat eduki beharko dute.

Sistema horren funtzionalitateak honako hauek izango dira:

– Sistema horrek, gutxienez, instalazio berriztagarriak egunean, hilean edo urtean produzitutako energia erakutsi beharko du, eta aldi horiei dagokien energia-kontsumoa, 6. pizgarri-programaren jarduketetan izan ezik, non aldi horiei dagokien energia-kontsumoa erakustea ez den beharrezkoa izango.

– Aurrekoaz gainera, sistemak datu gehigarriak erakusteko aukera ere izango du, hala nola saihestutako CO₂ emisioak eta instalazioaren jabearentzat sortutako aurrezki ekonomikoa.

– Pantaila bat jarri beharko da ondo ikusteko moduko toki batean, datu eguneratuak erakusteko. Hori programa guztietan aplikatzeko aukera izango da, bizitegi-sektoreko jarduketarako izan ezik.

– Aurrekoaz gainera, edozein jarduketarako, informazio horrek eskuragarri egon beharko du gailu mugikorraren edo web aplikazioaren bitartez, 6. pizgarri-programaren laguntzaren xede diren jarduketarako izan ezik, kasu horretan datuetan sartzeko aukera izango delarik instalazioaren ekipoetako baten bitartez, 70 kW-tik beherako potentziako instalazioetarako oro har, eta 14 kW-tik beherako potentziako instalazioetarako eguzki-teknologia termikoaren kasuan. Oro har 70 kW-tik gorako potentzia duten instalazioetarako eta 14 kW-tik gorako instalazioetarako eguzki-teknologia termikoaren kasuan, pantaila bat jartzeko aukera izango da, ongi ikusteko moduko toki batean».

11.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (54/26) orrialdean, «Jarduketa subentzionagarrien betekizunak eta kostu hautagarriak» I. eranskinaren «Jarduketa subentzionagarriak» IE.1 atalaren C epigrafean.

Hau dio:

«F. Klimatizaziorako edo ur bero sanitariorako biomasa-instalazioen kasuan (6. pizgarri-programaren barruan bildu dira):

Tipologia horretako instalazioek berotegi-efektuko gas-emisioak gutxienez % 80 murriztea lortu beharko dute, «Klima-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefizientea» % 100 izan dadin, Susper-tze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen (EB) 2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinak ezarritakoa betez.

Gainera, toki-berokuntzako aparatuek edo MW 1etik beherako galdarak biltzen dituzten jarduketek:

– Ekipoaren fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztu beharko dute, non egiaztatzen den urtaroko energia-efizientziari eta erabiliko den erregairako emisioei lotutako eskakizunak beteko direla, eta kontuan izanda betiere eskakizun horiek ezin izango direla izan indarreko Ekodiseinuari buruzko Erregelamenduan (Batzordearen (EB) 2015/1185 erregelamenduaren edo Batzordea-

ren (EB) 2015/1189 Erregelamenduaren artean dagokiona) definitutakoak baino exigentzia-maila txikiagokoak.

– Jarduketa tipologia horretarako oinarri hauetan eta deialdian ezarritako betebeharrak eskakizun gehigarri gisa, onuradunak dokumentu-erregistro nahikoa atxikiko du, galdaran erabilitako erregaiak erakunde independente akreditatu batek emandako ziurtagiria duela akreditatzea ahalbidetuko duena, A1 klasea betetzeari buruzkoa UNE-EN-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera, UNE-EN-ISO 17225-4 arauaren 1. klaseari buruzkoa, 164003 arauaren A1 klaseari buruzkoa edo 164004 arauaren A1 klaseari buruzkoa. Bost urteko epean atxikiko da erregistro hori.

Horrez gain, MW 1etik 50 MW-ra bitarteko instalazioetatik eratorritako emisioek bete egin beharko dituzte, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen duen errekuntza-instalazio ertainetatik eratorritako agente kutsatzaile jakin batzuen atmosferarako emisioak mugatzeari buruzko abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuan ezarritako emisio-betekizunak, baita Estatuan haiei aplikatzekoa den beste edozein legeria ere.

Biomasa bete egingo ditu 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia berriztagarrietatik eratorritako energia-erabilera sustatzeari buruzko 2018/2001 Zuzentarauaren 29.– 31. artikuluetan ezarritako jasangarritasun-irizpideak, baita dagozkion egin-tza eskuordetuak eta egikaritzekoak ere.

6. pizgarri-programan bildutako toki-berokuntzako aparatuen aurrealdea itxita egongo da».

Baina hau esan behar du:

«F. Klimatizaziorako edo ur bero sanitariorako biomasa-instalazioen kasuan (6. pizgarri-programaren barruan bildu dira):

Tipologia horretako instalazioek berotegi-efektuko gas-emisioak gutxienez % 80 murriztea lortu beharko dute, "Klima-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefiziente" % 100 izan dadin, Susper-tze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen (EB) 2021/241 Erregelamenduko VI. eranskinak ezarritakoa betez.

Gainera, toki-berokuntzako aparatuek edo MW 1etik beherako galdarak biltzen dituzten jarduketek:

– Ekipoaren fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztu beharko dute, non egiaztatzen den urtaroko energia-efizientziari eta erabiliko den erregairako emisioei lotutako eskakizunak beteko direla, eta kontuan izanda betiere eskakizun horiek ezin izango direla izan indarreko Ekodiseinuari buruzko Erregelamenduan (Batzordearen (EB) 2015/1185 erregelamenduaren edo Batzordearen (EB) 2015/1189 Erregelamenduaren artean dagokiona) definitutakoak baino exigentzia-maila txikiagokoak.

– Oinarri hauetan eta jarduketa-tipologia honetarako deialdietan ezarritako betebeharrak bete-kizun hau gehituko zaie: onuradunak dokumentu-erregistro nahikoa edukiko du egiaztatzeko ekipoan erabilitako erregaiak badaukala entitate bermatu independente batek emandako ziurtagiri bat. Bertan, adieraziko da betetzen duela UNE-EN-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera A1 klasea, UNE-EN-ISO 17225-3 arauko A1 klasea, UNE-EN-ISO 17225-4 arauko A1 klasea, UNE-164003 arauko A1 klasea edo UNE-164004 arauko A1 klasea. Zurezko egurrez elikatutako ekipoak biltzen dituzten jarduketak ere subentzionatu ahalko dira, betiere M20 propietate klasea betetzen badute UNE-EN-ISO 17225-5 arauan ezarritakoaren arabera, eta 50.000 biztanletik

gorako udalerrietan edo probintziako hiriburuetan egiten ez badira. Erregai horiekin soilik funtzionatzen duten ekipoa subentzionatu ahalko dira bakarrik. Bost urteko epean gordeko da erregistro hori, bioerregaiaren albaran edo salmenta-fakturak barne.

Horrez gain, MW 1etik 50 MW-ra bitarteko instalazioetatik eratorritako emisioek bete egin beharko dituzte, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzen duen errekontza-instalazio ertainetatik eratorritako agente kutsatzaile jakin batzuen atmosferarako emisioak mugatzeari buruzko abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuan ezarritako emisio-betekizunak, baita Estatuan haiei aplikatzekoa den beste edozein legeria ere.

Biomasa bete egingo ditu 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia berriztagarrietatik eratorritako energia-erabilera sustatzeari buruzko 2018/2001 Zuzentarauaren 29.– 31. artikuluetan ezarritako jasangarritasun-irizpideak, baita dagozkion egin-tza eskuordetuak eta egikaritzekoak ere.

6. pizgarri-programan bildutako toki-berokuntzako aparatuen aurrealdea itxita egongo da.»

12.– Pizgarri-programa arautzen duten Oinarrietako 2021/5035 orrialdean (54/34-35), «Dokumentazioa» II. eranskineko «1., 2., 3., 4. eta 5. pizgarri-programei aplikatzekoa den dokumentazio teknikoa» IIE.A2 ataleko a)-2 epigrafean,

Hau dio:

«- Biltegitratzea (instalatu gero):

Biltegitratzea	Bai/Ez
Teknologia (berun-azidoa, gela, ioi-litioa...)	
Bateria kopurua	
Biltegitratze-sistemaren kapazitatea	kWh
Biltegitratze-instalazioaren potentzia	kW
Lehendik dagoen autokontsumo-instalazioaren potentzia (3. Eta 5. Pizgarri-programetarako)	kW

Biltegitratze-sistemarik badago, kontuan hartu beharko da sorkuntza-potentziarekiko biltegitratze-kapazitate instalatuaren ratioa, gehienez ere, 2 kWh/kW izan daitekeela.

– Jarduketa gehigarriak:

Amiantozko estalkia kentzen da?	Bai/Ez
Lehendik dauden instalazioak eraisten dira?	Bai/Ez
Markesina barne	Bai/Ez
Autokontsumo kolektiboa	Bai/Ez

Baina hau esan behar du:

«- Biltegitratzea (instalatu gero):

Biltegitratzea	Bai/Ez
Teknologia (berun-azidoa, gela, ioi-litioa...)	
Bateria kopurua	
Biltegitratze-sistemaren kapazitatea	kWh
Biltegitratze-instalazioaren potentzia	kW
Lehendik dagoen autokontsumo-instalazioaren potentzia (3. Eta 5. Pizgarri-programetarako)	kW

Biltegitratze-sistemarik badago, kontuan hartu beharko da sorkuntza-potenziarekiko biltegitratze-kapazitate izendatu instalatuaren ratioa, gehienez ere, 5 kWh/kW izan daitekeela. Sareko instalazio isolatuen kasuan, murrizketa hori ez da aplikatu beharrik izango.

– Jarduketa gehigarriak:

Amiantozko estalkia kentzen da?	Bai/Ez
Markesina barne	Bai/Ez
Autokontsumo kolektiboa	Bai/Ez

13.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrietako 2021/5035 orrialdean (54/36), «Dokumentazioa» II. eranskineko «6. pizgarri-programari aplikatzekoa den «Dokumentazio teknikoa» IIE.A3 ataleko B-1 epigrafean,

Hau dio:

«Biomasa tipologiaren eskaeretarako, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

1.– Berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketari dagokionez, erabiliko diren erregai guztien balio lehenetsia % 80 edo handiagoa dela dioen adierazpena, iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera sustatzeari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen (EB) 2018/2001 Zuzentarauaren VI. eranskinen bera sortzeko adierazitako arabera, produkzio-sistema eta balio lehenetsi hori osatzen duten gainerako baldintzak kontuan hartuz, erregaiaren edo erregaien deskribapena eta balio lehenetsiak adierazita.

Erabiliko diren erregaietako batek aurreko betekizun hori betetzen ez badu, eskumeneko teknikari independente batek sinatutako memoria bat aurkeztuko da, non justifikatuko den, proiekturako aurreikusitako baldintzak aintzat hartuz eta VI. eranskin horretan jasotako metodologiarekin bat etorrituz, erregai horretarako berotegi-efektuko gasen murrizketa % 80 edo handiagoa dela».

Baina hau esan behar du:

«Biomasa tipologiaren eskaeretarako, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

1.– Berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketari dagokionez, erabiliko diren erregai guztien balio lehenetsia % 80 edo handiagoa dela dioen adierazpena, iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera sustatzeari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen (EB) 2018/2001 Zuzentarauaren VI. eranskinen bera sortzeko adierazitako arabera, produkzio-sistema eta balio lehenetsi hori osatzen duten gainerako baldintzak kontuan hartuz, erregaiaren edo erregaien deskribapena eta balio lehenetsiak adierazita.

Erabiliko diren erregaietako batek aurreko betekizun hori betetzen ez badu, eskumeneko teknikari independente batek edo enpresa instalatzaileak sinatutako memoria bat aurkeztuko da, non justifikatuko den, proiekturako aurreikusitako baldintzak aintzat hartuz eta VI. eranskin horre-

tan jasotako metodologiarekin bat etorritz, erregai horretarako berotegi-efektuko gasen murrizketa % 80 edo handiagoa dela».

14.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrietako 2021/5035 orrialdean (54/37), «Dokumentazioa» II. eranskineko «6. pizgarri-programari aplikatzekoa den dokumentazio tekniko» IIE. A3 ataleko B-3 epigrafean,

Hau dio:

«3.– Toki-berokuntzako aparatuak edo MW 1etik beherako galdarak barne hartzen badira, onuradunaren adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non honako konpromiso hau hartuko duen: bost urtez, dokumentu-erregistro nahikoa atxikitzea, galdaran erabilitako erregaiak erakunde independente akreditatu batek emandako ziurtagiria duela akreditatzea ahalbidetuko duena, A1 klasea betetzeari buruzkoa UNE-EN-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera, UNE-EN-ISO 17225-4 arauaren 1. klaseari buruzkoa, 164003 arauaren A1 klaseari buruzkoa edo 164004 arauaren A1 klaseari buruzkoa».

Baina hau esan behar du:

«3. Toki-berokuntzako aparatuak edo MW 1etik beherako galdarak barnean hartzen badira, onuradunaren adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non honako konpromiso hau hartuko duten: galdaran erabilitako erregaiak erakunde independente akreditatu batek emandako ziurtagiria duela egiaztatzea, A1 klasea betetzeari buruzkoa UNE-EN-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera, UNE-EN-ISO 17225-3 arauaren A1 klaseari buruzkoa, UNE-EN-ISO 17225-4 arauaren A1 klaseari buruzkoa, UNE-164003 arauaren A1 klaseari buruzkoa edo UNE-164004 arauaren A1 klaseari buruzkoa. Egurraren kasuan M20 propietate klasearekin bete beharko du UNE-EN-ISO 17225-5 arauan ezarritakoaren arabera. Konpromisoa hartzen du, halaber, dokumentu-erregistro bat bost urteko epean mantentzeko, aurrekoa akreditatzea ahalbidetuko duten bioerregaien salmenta-albaran edo salmenta-fakturrekin».

15.– Pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrietako 2021/5035 orrialdean (54/38), «Dokumentazioa» II. eranskineko «Egindako jarduketa justifikatzeko dokumentazioa» IIE.B2 ataleko b).3 epigrafean,

Hau dio:

«3.– 4. pizgarri-programaren kasuan, eskumeneko teknikari edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txostena, non justifikatuko den instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura, urtean, laguntzaren xede den instalazioak urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago dela.

Txosten hori ez da beharrezkoa izango 2,63 kW-ko edo hortik beherako potentziako teknologia fotovoltaikoko bizitegi-sektoreko instalazioetan, ezta 3,69 kW-ko edo hortik beherako potentziako teknologia eolikoko bizitegi-sektoreko instalazioetan ere.

Txostena aurkeztea ez da beharrezkoa izango, halaber, baldin eta instalazioa Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren webgunean argitara daitezkeen kasu estandarretako batekin lotzeko aukera badago, eta kasu horretan hori justifikatu beharko da.

1., 2. eta 4 pizgarri-programen kasuan, eskatzaileak amianto-instalazioak eraisteko laguntza gehigarriaren eskaera erantsi badu, aplikatzekoa den araudian ezarritako betebeharrak guztiak betetzen direla justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da».

Baina hau esan behar du:

«3.– 4. pizgarri-programaren kasuan, eskumeneko teknikari edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txostena, non justifikatuko den instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumi-

tzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura, urtean, laguntzaren xede den instalazioak urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago dela.

Txosten hori ez da beharrezkoa izango 2,63 kW-ko edo hortik beherako potentziako teknologia fotovoltaikoko bizitegi-sektoreko instalazioetan, ezta 3,69 kW-ko edo hortik beherako potentziako teknologia eolikoko bizitegi-sektoreko instalazioetan ere.

Txostena aurkeztea ez da beharrezkoa izango, halaber, baldin eta instalazioa Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren webgunean argitara daitezkeen kasu estandarretako batekin lotzeko aukera badago, eta kasu horretan hori justifikatu beharko da.

1., 2. eta 4 pizgarri-programen kasuan, eskatzaileak amianto-instalazioak eraisteko jarduketa osagarria erantsi badu, aplikatzekoa den araudian ezarritako betebeharrak guztiak betetzen direla justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da."»

16.– III. eranskina guztiz aldatzen da (pizgarri-programa hori arautzen duten Oinarrien 2021/5035 (43-54) orrialdeak), honela idazteko:

«III. ERANSKINA - GEHIENEN KOSTU SUBENTZIOAGARRIAK, ERREFERENTZIAZKO KOSTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

A1 LAGUNTZEN DEFINIZIOA

1.– Deialdi honetan araututako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta, betiere, dagozkion jarduketa subentzionarioak betetzeko helburua dute.

2.– Dagokion emakida-ebazpenean ezarritako zenbatekoko laguntza, jarduketa subentzionarioa denboran eta forman bete izana justifikatu ondoren emango zaio laguntzen azken hartzaileari, programa honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betez.

3.– Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, eranskin honetan adierazten den bezala.

Eman beharreko laguntza totalaren zenbatekoa, sorkuntzako laguntza totalaren eta, bidezko bada, biltegitartzeko laguntza totalaren arteko batura izango da. Sorkuntzako eta biltegitartzeko laguntza totalak oinarritzko laguntzaren arabera zehaztuko dira, kasuan kasu bidezkoa izan litekeen erroka demografikoagatiko laguntza gehigarriarekin batera, honako atal hauetan ezarritakoaren arabera.

1.– Oinarritzko laguntza. Pizgarri-programa bakoitzerako, eranskin honetako A3 atalaren arabera, oinarritzko laguntza sorkuntzarako kostu subentzionarioaren ehuneko baten gisara ezartzen da, eta horren barnean kostu osagarriak hartu behar dira, horrelakorik bada, baita, bidezko bada, biltegitartzeko kostu subentzionarioaren guztizkoa ere, 1., 2. eta 3. programetarako; edo biltegitartzeko kapazitate-unitatearen edo potentzia-unitatearen arabeko balio finko edo modulu batzuen gisara, 4., 5. eta 6. programetarako.

2.– Laguntza gehigarria. Jarduketa subentzionarioaren motaren eta programaren arabera, erroka demografikoagatiko laguntza gehigarri batekin osatu daiteke oinarritzko laguntza, eranskin honetako A4 atalean ezartzen denaren arabera.

4.– Eman beharreko laguntza totalaren zenbatekoa, edozein kasutan ere, jarduketa tipologiari eta azken hartzaile motari aplikatzekoa den Estatuko laguntzen Europako araudiaren aplikazioaren ondoriozko gehieneko zenbatekoak mugatuko du.

Bestetik, sorkuntzako, eta, bidezko bada, biltegitratzeko laguntza totalak, ezin izango dute egindako eta gauzatutako jarduketaren kostu subentzionagarriaren guztizkoa gainditu, nola sorkuntza-instalaziorako hala biltegitratze-instalaziorako, hurrenez hurren.

5. – Aurreko ataletan aurreikusitakoa aplikatuko zaie EAeko administrazioek gauza ditzaketen zuzeneko inbertsioei.

A2 kostu subentzionagarriak eta laguntzak

1.–, 2.– eta 3.– pizgarri-programetarako, laguntzak kalkulatu dira kostu subentzionagarrien guztizkoaren gaineko ehuneko baten arabera. 4.–, 5.– eta 6.– pizgarri-programetarako, laguntzak zenbateko finko unitarioran edo «modulutan» emango dira, gehienez kostu hautagarriaren guztizkoa estaliko dutenak.

Jarduketa bakoitzari dagozkion kostu subentzionagarriak kalkulatzeko metodologia eranskin honetan ezartzen da programa bakoitzerako, eta kostu hautagarritzat I. eranskinean deskribatutako kostu hautagarri aplikagarriak hartuko dira, ongi justifikatuta. Kostu hautagarri hori (Skh sorkuntzaren kasuan, kostu osagarriak barne, halakorik badago, eta Bkh biltegitratzearen kasuan) II. eranskinean ezarritakoaren arabera justifikatuko da. Kostu hautagarri totala (Kht) Skh-aren eta Bkh-aren arteko batura izango da.

Sorkuntzako kostu hautagarri unitarioa (Skhu) izango da sorkuntzako kostu hautagarria (Skh), eurotan, benetan instalatutako sorkuntza-potentziaren (Sp) (kW-tan, edo kWp-tan, fotovoltaikorako) artean zatitzearen emaitza.

Biltegitratzeko kostu hautagarri unitarioa (Bkhu) izango da, biltegitratzeko kostu hautagarria (Bkh), eurotan, biltegitratze-instalazioaren kapazitate izendatuaren (Kap) (kW-tan) artean zatitzearen emaitza.

Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoen kasuan, sorkuntza-potentzia lortuko da, laguntza kalkulatzeko, instalazio hori konfiguratu duten modulu fotovoltaikoen gehieneko potentziak batuz (puntuak potentzia esaten zaio normalean), kondizio estandarretan neurtuak dagoen une arauaren arabera.

Biltegitratze-instalazioen kasuan, laguntzaren kalkulua egiteko, biltegitratze-kapazitatea, biltegitratze-instalazioaren kapazitate izendatua izango da, haren fitxa teknikoan jasotakoaren arabera.

1.–, 2.– eta 3.– pizgarri-programak: kostu subentzionagarriaren definizioa eta laguntzaren kalkulua.

1.– eta 2.– programetan eman beharreko laguntza totala, sorkuntzako laguntza totalaren, eta, bidezko bada, biltegitratzeko laguntza totalaren arteko batura izango da. 3. programan, biltegitratzeko laguntza totala izango da laguntza totala.

Sorkuntzako laguntza totalaren kalkulua.

Sorkuntzako kostu subentzionagarri unitarioa (Sksu) honela kalkulatu da:

$$Sksu = Skhu - Kuf$$

Formularen azalpena:

Skhu: Sorkuntzako kostu hautagarri unitarioa, euro/kW-tan.

Kuf: Erreferentziako instalazioaren kostu unitarioa, euro/kW-tan.

Eranskin honen A3 atalean, erreferentziazko instalazioaren kostu unitarioak (Kuf) eta sorkuntzako gehieneko kostu subentzionario unitarioa (Sgksu) aurkezten dira. Sorkuntzako gehieneko kostu subentzionario unitario totala (Sgksut) kalkulatzeko, sorkuntzako gehieneko kostu subentzionario unitarioa (Sgksu) eta, aplikatzekoa bada, sorkuntzako gehieneko kostu subentzionario unitario osagarria (Sgksuo) batuko dira.

Sorkuntzako azken kostu subentzionario unitarioa (Saksu), kalkulaturako sorkuntzako kostu subentzionario unitarioaren (Sksu) eta sorkuntzako gehieneko kostu subentzionario unitario totalaren (Sgksut) arteko balio txikiena izango da.

Sorkuntzako kostu subentzionario totala (Skst) honako hau izango da:

Sorkuntzako kostu subentzionario totala (skst) = Sksuf x Sp

Sp sorkuntza-instalazioaren potentzia erreala izanik, kW-tan (kWp-tan eguzki-energia fotovoltaikorako), 5 MW-ra mugatua.

Sorkuntzako laguntza totala kalkulatzeko, sorkuntzako kostu subentzionario totala (Skst) jarduketa mota eta azken hartzaile mota bakoitzerako Oinarrizko Laguntzarako ezarritako laguntza-ehunekoaz biderkatuz lortuko da, eta oinarrizko laguntzaren ehuneko horri, bidezko bada, laguntza gehigarriagatik ehuneko 5 puntu gehituko zaizkio, A4 atalean ezarritakoaren arabera.

Biltegitzeko laguntza totalaren kalkulua.

Biltegitzeko kostu subentzionario unitarioa (Bksu), biltegitzeko kostu hautagarri unitarioari dagokio, euro/kWh-tan.

III. eranskin honen A3 atalean, biltegitze-jarduketa bakoitzerako biltegitzeko gehieneko kostu subentzionario unitarioa aurkezten da (Bgksu).

Biltegitzeko azken kostu subentzionario unitarioa (Baksu), kalkulaturako biltegitzeko kostu subentzionario unitarioaren (Bksu) eta biltegitzeko gehieneko kostu subentzionario unitarioaren (Bgksu) arteko balio txikiena izango da.

Biltegitzeko kostu subentzionario totala (Bkst) honako hau izango da:

Biltegitzeko kostu subentzionario totala (Bkst) = Bksuf x Kap

Kap biltegitzeko instalazioaren kapazitate izendatua izanik (kWh-tan).

Biltegitzeko laguntza totala kalkulatzeko, biltegitzeko kostu subentzionario totala (Bkst) jarduketa mota eta azken hartzaile mota bakoitzerako Oinarrizko Laguntzarako ezarritako laguntza-ehunekoaz biderkatuko da.

4.– pizgarri-programa: kostu subentzionarioen definizioa eta laguntzaren kalkulua

4.– programan eman beharreko laguntza totala, sorkuntzako laguntza totalaren, eta, bidezko bada, biltegitzeko laguntza totalaren arteko batura izango da, balio unitario konstanteen arabera (moduluak) ezartzen direnak.

Sorkuntzako laguntza totalaren kalkulua.

«Sorkuntza-modulua» sorkuntza-instalaziorako, eta, bidezko bada, «Modulu osagarria» jarduketa osagarriko balio unitario finkoa, eranskin honetako III.E.A3 atalean jarduketa eta sektore mota bakoitzerako adierazitakoak izango dira. Balio horiei, erronka demografikoagatik «Sor-

kuntzako modulu gehigarria» gehitzeko aukera izango da, eranskin honetako III.E.A4 atalean adierazitakoa, aplikatzekoa denean.

Sorkuntzako laguntza totala honela kalkulatuko da:

Sorkuntzako laguntza totala= (Sorkuntza-modulua + Modulu osagarria + Sorkuntza-modulu gehigarria) x Sp

Sp sorkuntza-instalazioaren potentzia erreal izanik, kW-tan (kWp-tan eguzki-energia fotovoltaiorako), 5 MW-ra mugatua.

Nolanahi ere, sorkuntzako laguntza totalak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren sorkuntzako kostu hautagarria (Skh), ongi justifikatuta.

Biltegitratzeko laguntza totalaren kalkulua.

«Biltegitratze-modulua» biltegitratze-instalaziorako balio unitario finkoa, eranskin honen A3 atalean adierazitakoekin bat etorriko da. Balio horri, erronka demografikoagatiko «Biltegitratzeko modulu gehigarria» gehitzeko aukera izango da, eranskin honetako A4 atalean adierazitakoa, aplikatzekoa denean.

Biltegitratzeko laguntza totala honela kalkulatuko da:

Biltegitratzeko laguntza totala = (Biltegitratze-modulua + Biltegitratze-modulu gehigarria) x Kap

Kap biltegitratze-instalazioaren kapazitate izendatua izanik, kWh-tan.

Nolanahi ere, biltegitratzeko laguntza totalak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren biltegitratzeko kostu hautagarria (Bkh), ongi justifikatuta.

5. pizgarri-programa: kostu subentzionagarrien definizioa eta laguntzaren kalkulua

5. programan, eman beharreko laguntza totala biltegitratzeko laguntza totala izango da. Biltegitratzeko laguntza totala, balio unitario konstantetan ezartzen da (moduluak).

«Biltegitratze-modulua» biltegitratze-instalaziorako balio unitario finkoa, eranskin honen A3 atalean adierazitakoekin bat etorriko da. Balio horri, erronka demografikoagatiko «Biltegitratzeko modulu gehigarria» gehitzeko aukera izango da, eranskin honetako A4 atalean adierazitakoa, aplikatzekoa denean.

Biltegitratzeko laguntza totala honela kalkulatuko da:

Biltegitratzeko laguntza totala = (Biltegitratze-modulua + Biltegitratze-modulu gehigarria) X Kap

Kap biltegitratze-instalazioaren kapazitate izendatua izanik, kWh-tan.

Nolanahi ere, biltegitratzeko laguntza totalak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren biltegitratzeko kostu hautagarria (Bkh), ongi justifikatuta.

6.– pizgarri-programa: kostu subentzionagarrien definizioa eta laguntzaren kalkulua

Eman beharreko laguntza totala, balio unitario konstantetan ezartzen da (moduluak).

«Sorkuntza-modulua» sorkuntza-instalaziorako, eta, bidezko bada, «Modulu osagarria» jarduketara osagarriarako balio unitario finkoa, eranskin honetako A3 atalean jarduketa eta sektore mota bakoitzerako adierazitakoak izango dira, kontuan hartuta eman beharreko laguntza totalak ezin

izango dituela etxebizitza bakoitzeko ezarritako gehieneko laguntza-balioak gainditu, aplikatzekoa bada, jarduketa osagarriaren gaineko gehieneko laguntza-muga gehituta.

Eman beharreko laguntza totala honela kalkulatu da:

Laguntza totala = (Sorkuntza-modulua + Modulu osagarria) x Sp

Sp instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentzia errealak izanik, kW-tan.

Aerotermino, geotermino eta hidrotermo jarduketa estandarretarako, fitxa teknikoetik edo fabrikatzailearen zehaztapenetatik ateratako berokuntza-potentzia izango da instalazioaren Sp potentzia, UNE-EN 14511 arauaren entsegu jarraikiz, hau da, bero-ponpa geotermikoetarako B0W35 berokuntza-potentziaren balioa hartuko da, eta bero-ponpa aerotermikoetarako, berriz, A7W35 berokuntza-potentziaren balioa. Sp potentzia arau horretan oinarrituta justifikatzea ezinezkoa denean, eskumeneko teknikari batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txosten bat aurkeztuko da, potentzia hori justifikatzeko.

Nolanahi ere, eman beharreko laguntza totalak ezin izango du gainditu benetan egindako jarduketaren sorkuntzako kostu hautagarria (Skh), ongi justifikatuta.

A3 oinarritzko laguntza kalkulatzeko erreferentziazko balioak

1.–, 2.– eta 4.– pizgarri-programetarako, jaso beharreko gehieneko dirulaguntza bat etorriko da instalazioaren potentziako lehen 5 MW-ekin. Muga hori gainditzen duten potentziak instalatzeko aukera badago, baina inoiz ere ezin izango da laguntzarik jaso 5 MW horien gainetik. Aipatzekoa da, halaber, teknologia bakoitzeko (eolikoa edo fotovoltaikoa) jarduketa bat bakarrik hautatzeko aukera izango dela laguntzaren azken erabiltzaile eta kokaleku bakoitzeko edo kontsumo berberari edo berberei loturik.

Hala badagokio, erreferentziazko instalazioaren kostu unitarioen balioak (Kuf), gehieneko kostu subentzionagarri unitarioak eta programa bakoitzean aplikatu beharreko laguntza-intentsitateak edo moduluak honako hauek dira:

1.– eta 2.– pizgarri-programak: zerbitzu-sektorean eta ekonomiaren beste produkzio-sektore batzuetan autokontsumo-instalazioak egitea energia-iturri berriztagarrien bitartez, biltegiatzearekin edo biltegiatzerik gabe.

Sorkuntza-jarduketak	Erreferentziako instalazioaren kostu unitarioa (Kuf) (euro/kW)	Sorkuntzako gehieneko kostu subentzionario unitarioa (Sgksu, euro/kW)	Enpresa handietarako laguntza (%), sorkuntzako kostu subentzionario totalaren gainean aplikatzekoa	Enpresa ertainetarako laguntza (%), sorkuntzako kostu subentzionario totalaren gainean aplikatzekoa	Enpresa txikietarako laguntza (%), sorkuntzako kostu subentzionario totalaren gainean aplikatzekoa
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp).	120	460	% 15	% 25	% 35
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa Potentzia (100 kWp < P ≤ 1.000 kWp).	-	749	% 15	% 25	% 35
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (10 kWp < P ≤ 100 kWp).	-	910	% 15	% 25	% 35
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (P ≤ 10kWp).	-	1.188	% 15	% 25	% 45
Autokontsumorako instalazio eolikoa (500 kW < P ≤ 5.000 kW).	258	1.070	% 20	% 30	% 40
Autokontsumorako instalazio eolikoa (20 kW < P ≤ 500 kW).	129	3.072	% 30	% 40	% 50
Autokontsumorako instalazio eolikoa (P ≤ 20 kW).	86	4.723	% 30	% 40	% 50

Aurreko taulan aurkeztutakoei modu osagarrian aplikatzekoak diren gehieneko kostu subentzionario unitarioak honako hauek dira, betiere markesinaren –edo amiantoa kendu zaion gainazalaren– gainean instalatutako potentzia-ehuneko, gutxienez, benetan instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentziaren (Sp) ehuneko 50 bada. Hala ez bada, honako hauek ez dira gehieneko kostu subentzionario unitario osagarritzat joko:

Sorkuntza-jarduketa osagarriak	Sorkuntzako gehieneko kostu subentzionario unitario osagarria (Sgksuo, euro/kWp-tan)
Amiantoa kentzea eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan.	P ≤ 100 kWp: 660 euro/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 450 euro/kWp 1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp: 210 euro/kWp
Eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak instalatzea	500 euro/kWp

Hala badagokio, biltegitratzeko gehieneko kostu subentzionagarri unitarioa eta programa bakoitzean aplikatu beharreko laguntza-intentsitateak honako hauek dira:

Biltegitratze-jarduketak	Biltegitratzeko gehieneko kostu subentzionagarri unitarioa (Bgksu, euro/kW-tan)	Enpresa handietarako laguntza (%), biltegitratzeko kostu subentzionagarri totalaren gainean aplikatzekoa	Enpresa ertainetarako laguntza (%), biltegitratzeko kostu subentzionagarri totalaren gainean aplikatzekoa	Enpresa txikietarako laguntza (%), biltegitratzeko kostu subentzionagarri totalaren gainean aplikatzekoa
Autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (5.000 kWh < Kap).	200	% 45	% 55	% 65
Autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (100 kWh < Kap ≤ 5.000 kWh).	350	% 45	% 55	% 65
Autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (10 kWh < Kap ≤ 100 kWh).	500	% 45	% 55	% 65
Autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (Kap ≤ 10 kWh).	700	% 45	% 55	% 65

3.– pizgarri-programa: zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.

Biltegitratze-jarduketak	Biltegitratzeko gehieneko kostu subentzionagarri unitarioa (Bgksu, euro/kW-tan)	Enpresa handietarako laguntza (%), biltegitratzeko kostu subentzionagarri totalaren gainean aplikatzekoa	Enpresa ertainetarako laguntza (%), biltegitratzeko kostu subentzionagarri totalaren gainean aplikatzekoa	Enpresa txikietarako laguntza (%), biltegitratzeko kostu subentzionagarri totalaren gainean aplikatzekoa
Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (5.000 kWh < Kap).	200	% 45	% 55	% 65
Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (100 kWh < Kap ≤ 5.000 kWh).	350	% 45	% 55	% 65
Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (10 kWh < Kap ≤ 100 kWh).	500	% 45	% 55	% 65
Zerbitzu-sektorean eta beste produkzio-sektore batzuetan lehendik dauden energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea (Kap ≤ 10 kWh).	700	% 45	% 55	% 65

4.– Pizgarri-programa: bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumo-instalazioak egitea energia-iturri berriztagarrien bitartez, biltegitratzearekin edo biltegitratzerik gabe.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten moduluak honako hauek dira:

Bizitegi-sektorea:

Sorkuntza-jarduketak	Sorkuntza-modulua [Laguntza (euro/kW)]	Autokontsumo kolektiborako sorkuntza-modulua [Laguntza (euro/kW)]
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp).	300	355
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (100 kWp < P ≤ 1.000 kWp).	350	420
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (10 kWp < P ≤ 100 kWp).	450	535
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (P ≤ 10 kWp).	600	710
Autokontsumorako instalazio eolikoa (500 kW < P ≤ 5.000 kW).	650	775
Autokontsumorako instalazio eolikoa (20 kW < P ≤ 500 kW).	1.950	2.250
Autokontsumorako instalazio eolikoa (P ≤ 20 kW).	2.900	3.350

Administrazio publikoak eta hirugarren sektorea:

Sorkuntza-jarduketak	Sorkuntza-modulua [Laguntza (euro/kW)]	Autokontsumo kolektiborako sorkuntza-modulua [Laguntza (euro/kW)]
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp).	500	555
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (100 kWp < P ≤ 1.000 kWp).	650	720
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (10 kWp < P ≤ 100 kWp).	750	835
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (P ≤ 10 kWp).	1.000	1.110
Autokontsumorako instalazio eolikoa (500 kW < P ≤ 5.000 kW).	1.150	1.275
Autokontsumorako instalazio eolikoa (20 kW < P ≤ 500 kW).	2.700	3.000
Autokontsumorako instalazio eolikoa (P ≤ 20 kW).	4.100	4.550

Bidezko bada, aurreko taulan aurkeztutakoei modu osagarrian aplikatzekoak diren jarduketa osagarrien gaineko laguntzak honako hauek dira, betiere markesinaren –edo amiantoa kendu zaion gainazalaren– gainean instalatutako potentzia-ehunekoa, gutxienez, benetan instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentziaren (Sp) ehuneko 50 bada. Hala ez bada, honako hauek ez dira modulu osagarritzat joko:

2022ko uztailaren 15a, ostirala

Sorkuntza-jarduketa osagarriak	Sorkuntza-modulu osagarriak [Jarduketa osagarriko laguntza (euro/kWp) (kasuaren arabera)]
Amiantoa kentzea eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako estalkietan*	P ≤ 100 kWp: 160 euro/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 110 euro/kWp 1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp: 50 euro/kWp
Eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea.	120 euro/kWp

Biltegitratze-sistemak (biltegitratze-modulua) txertatuz gero, honako laguntza hauek aplikatuko dira:

Biltegitratze-jarduketak	Biltegitratze-modulua [Laguntza (euro/kWh)]
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (5.000 kWh < Kap).	140
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (100 kWh < Kap ≤ 5.000 kWh).	245
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (10 kWh < Kap ≤ 100 kWh).	350
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (Kap ≤ 10 kWh).	490

5.– Pizgarri-programa: Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean lehendik dauden energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumo-instalazioetan biltegitratzea txertatzea.

Biltegitratze-jarduketak	Biltegitratze-modulua [Laguntza (euro/kWh)]
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (5.000 kWh < Kap).	140
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (100 kWh < Kap ≤ 5.000 kWh).	245
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (10 kWh < Kap ≤ 100 kWh).	350
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegitratzea txertatzea (Kap ≤ 10 kWh).	490

6.– pizgarri-programa: Bizitegi-sektorean energia berriztagarri termikoen instalazioak egitea.

Bizitegi-sektorea:

2022ko uztailaren 15a, ostirala

Sorkuntza-jarduketak	Sorkuntza-modulua [Laguntza (euro/kW)]	Gehieneko laguntza-balioa (euro/etxebizitza)
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako aire-ur instalazio aerotermikoak.	500	3.000
Eguzki-instalazio termikoa ($P > 400$ kW).	450	550
Eguzki-instalazio termikoa (100 kW $< P \leq 400$ kW).	600	780
Eguzki-instalazio termikoa (50 kW $< P \leq 100$ kW).	750	900
Eguzki-instalazio termikoa ($P \leq 50$ kW).	900	1.800
Galdaretarako biomasa.	250	2.500
Toki-berokuntzako aparatuetarako biomasa.	250	3.000
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu itxiko instalazio geotermikoak.	2.250	13.500
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu irekiko instalazio geotermikoak.	1.600	9.000

Jabetza publikoko eta hirugarren sektoreko etxebizitzak:

Sorkuntza-jarduketak	Sorkuntza-modulua [Laguntza (euro/kW)]	Gehieneko laguntza-balioa (euro/etxebizitza)
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako aire-ur instalazio aerotermikoak.	650	3.900
Eguzki-instalazio termikoa ($P > 400$ kW).	650	820
Eguzki-instalazio termikoa (100 kW $< P \leq 400$ kW).	750	950
Eguzki-instalazio termikoa (50 kW $< P \leq 100$ kW).	850	1.050
Eguzki-instalazio termikoa ($P \leq 50$ kW).	950	1.850
Galdaretarako biomasa.	350	3.500
Toki-berokuntzako aparatuetarako biomasa.	350	4.200
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu itxiko instalazio geotermikoak.	2.250	13.500
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu irekiko instalazio geotermikoak.	1.700	9.550

Aurreko taulan aurkeztutakoei osagarri moduan aplikatzekoak diren gehieneko balio unitarioak honako hauek dira:

Sorkuntza-jarduketa osagarriak	Sorkuntza-modulu osagarria [Jarduketa osagarriko laguntza (kasuaren arabera)]
Klimatizazioko barne-banaketa berria, zirkuitu hidraulikoak eta/edo zoru bero-emailea aerotermiako, geotermiako, hidrotermiako edo eguzki-energia termikoko proiektuetarako, betiere sistema horiek energia berriztagarriarekin funtzionatzen badute % 100ean.	600 euro/kW (etxebizitza bakoitzeko gehieneko muga 3.600 euro da)
Klimatizazioko barne-banaketa berria, zirkuitu hidraulikoak eta/edo behe-tenperaturako erradiadoreak edo bentilokonektoreak, aerotermiako, geotermiako, hidrotermiako edo eguzki-energia termikoko proiektuetarako, betiere sistema horiek energia berriztagarriarekin funtzionatzen badute % 100ean.	550 euro/kW (etxebizitza bakoitzeko gehieneko muga 1.830 euro da)
Lehendik dauden instalazioen eraispena.	Eguzki-energia termikorako: 350 euro/kW 385 euro (gehieneko muga etxebizitza bakoitzeko) Biomasarako: 40 euro/kW 480 euro (gehieneko muga etxebizitza bakoitzeko)

A4 laguntza gehigarria

1.– 1. eta 2. pizgarri-programen sorkuntza-jarduketa guztiek aukera izango dute kostu subentzionagarriaren gaineko laguntza aplikagarria ehuneko 5 puntutan igotzeko, baldin eta 5.000 biztanlerainoko udalerrietan kokatzen badira, edota 20.000 biztanlerainoko udalerriz ez-hiritarretan, betiere, horietako herrigune bakoitzean, 5.000 biztanle edo gutxiago badituzte. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Hiri Eremuetako Atlasari jarraikiz identifikatuko da udalerriz baten izaera ez-hiritarra. Udalerrietako biztanle kopurua zehaztearren, udal-eroldan 2020ko urtarriaren 1ean egindako berrikuspenaren ondoriozko biztanle kopuruaren ofizialtasuna aitortzen duen abenduaren 15eko 1147/2020 Errege Dekretua aplikatuko da. Bi iturri ofizialen hurrengo berrikuspenetan atal honetan ezarritako biztanle kopuruak bete ditzaketen udalerriz ere hautagarriak izango dira.

2.– 1., 2. eta 3. pizgarri-programetarako ezin izango dira inoiz 2014ko ekainaren 17ko Batzordearen (EB) 651/2014 Erregelamenduko 41. artikuluan ezarritako laguntza-intentsitateko mugak gainditu.

3.– 4. eta 5. pizgarri-programen jarduketetarako, A2 atalean ezarritakoei gehitutako laguntzak ezartzen dira, hurrengo taulan jaso direnak, baldin eta instalazioak 5.000 biztanlerainoko udalerrietan kokatzen badira, edota 20.000 biztanlerainoko udalerriz ez-hiritarretan, betiere, horietako herrigune bakoitzean, 5.000 biztanle edo gutxiago badituzte (erronka demografikoagatikoko laguntza gehigarria), udalerriz horiek aurreko 1. atalean adierazitakoari jarraikiz identifikatu ondoren.

Sorkuntza-jarduketak	Sorkuntza-modulu gehigarria [Erronka demografikoagatiko laguntza gehigarria (euro/kW)]
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (1.000 kWp < P ≤ 5.000 kWp).	30
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (100 kWp < P ≤ 1.000 kWp).	35
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (10 kWp < P ≤ 100 kWp).	40
Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa (P ≤ 10 kWp).	55
Autokontsumorako instalazio eolikoa (500 kW < P ≤ 5.000 kW).	65
Autokontsumorako instalazio eolikoa (20 kW < P ≤ 500 kW).	150
Autokontsumorako instalazio eolikoa (P ≤ 20 kW).	225

Biltegiatze-jarduketak	Biltegiatze-modulu gehigarria [Erronka demografikoagatiko laguntza gehigarria (euro/kW)]
Bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean autokontsumorako energia berriztagarriko instalazio-proiektuari biltegiatzea txertatzea.	15

».

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluari jarraikiz, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Laugarrena.– Ebazteke duden laguntza-eskaerak, eskaera aurkeztean programa arautzeko indarrean dauden oinarriek jarraikiz ebatziko dira, Ebazpen honetan jasota egonik, espediente guztiei aplikatzekoak diren alderdi osagarri edo prozedura-alderdi guztiei kalte egin gabe (4., 5., 6., 7., 8., 12., 13., 14. eta 15. aldaketak), laguntza-eskaera aurkeztu zen data edozein izanik ere.

Bosgarrena.– Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2022ko ekainaren 29a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.